

LEITZA / 'Liburuzaina, estu eta larri' txotxongiloen lana gaur liburutegian

N. Garzia

Gaur, 18:00etan, "Liburuzaina, estu eta larri" txotxongilo lana eskainiko dute Leitzako Herri Liburutegian. Umeei zuzenduta dagoen lan hau 6 urtetik gorako umeentzat gomendatuta dago.

Pindelbum andereñoa

Liburuzaina, estu eta larri lanak Pindelbum andereñoaren istorioa kontatzen du. Egun batean basora ibilialdi bat egitera irten zen eta bidelapur batzuk berarekin topo egin eta beraien gordelekura eraman zuten. Ondoren, alkate batek bidelapurrek bidalitako gutun bat jaso zuen, eta... Hortik aurrera, istorioaren amaiera jakiteko, umeek Herri Liburutegira joan beharko dute.

Hainbat emanaldi

Gus marionetas taldearen lan honek Euskal Herriko hainbat leku bisitatu ditu, eta off-eko ahotsak Fernando Arregik eta Susana Pellicerrek jarriko dituzte.